

artikulu nabarmenak artículos destacados



otsaila/febrero



CRESPO GARRIDO, María. Medidas públicas que pueden potenciar la emancipación temprana. Fiscalidad de los rendimientos del trabajo y brecha salarial. Gasto público en educación e inserción laboral de menores de 30 años. En: SEGADO SÁNCHEZ-CBEZUDO, Sagrario, coord. *Juventud, emancipación y trabajo salarial*. Cizur Menor (Navarra): Thompson, 2016, capítulo 12, 317-341. ISBN 978-84-9098-002-6

Gazteen langabeziari aurre egiteko, familien txirotasuna saihestea eta belaunaldiarteko programak sustatzea helburu duten politika publikoak erabili eta kalitatezko hezkuntza sustatzeaz gainera, zenbait adituk beste konponbide batzuk proposatu dituzte (besteak beste, praktiketako kontratuak, beken esparrua, lanaldi partzialeko kontratua dutenen gizarte-babesa eta prestakuntza-kontratua erreformatzea, prestakuntza-aldia kotizazioan sartzea eta heziketa dualari prestigioa ematea). Lan-kostuak, gizarte segurantzako kotizazioak eta presio fiskala desberdinak dira Europako herrialde batetik bestera. Faktore horiek enplegua sortzeko baliabideak baldintzatzen dituzte, eta, ildo horretan, Europar Batasunak gazte-bermea sustatzen du, 25 urtetik beherakoek prestakuntzaren ondoren lan-eskaintza jasoko dutela bermatzeko, gizarte segurantzako kotizazioen beherapenaren bitartez



SOTOMAYOR MORALES, Eva. Jóvenes españoles: las presiones del contexto económico y las nuevas demandas de consumo y estilos de vida. En: SEGADO SÁNCHEZ-CBEZUDO, Sagrario, coord. *Juventud, emancipación y trabajo salarial*. Cizur Menor (Navarra): Thompson, 2016, capítulo 13, 343-362. ISBN 978-84-9098-002-6.

Egungo krisialdian gazteak ez dira lehentasunezko arretaren xede, familientzako laguntzen bitartez laguntzen zaie. Gazteak ziklo ekonomikoekiko sentiberagoak dira, egiten dituzten jarduera motengatik eta beren lanpostuen kalitate eskasagatik. Hona gazteen ingurunearen beste ezaugarri batzuk: lehiakortasuna, mugikortasuna, behin-behinekotasuna, tarteka lan-merkatutik kanpo ibiltzea (hori, batzuetan, aisialdi luzeagoarekin lotuta egon daiteke) eta erosteko ahalmenaren galera. Gazteen lana behar bezala ordaintzen ez duen lan-merkatuak eragiten du galera hori; baina, aldi berean, merkatuak hertsatu egiten ditu kostu handiko ondasunak kontsumitu ditzaten, Internetekin eta komunikazioekin zerikusia dutenak, eta ondasun horiek ez edukitzeak urrundu egiten ditu kidekoengandik eta harremanetarako, lanbide-aurrerapenerako zein aurrerapen pertsonalerako aukeretatik. Teknologiaren erabilera horrek mendekotasuna eta desberdintasuna sortzen ditu. Europan askotariko gizarte-politikak erabiltzen dira gazteen arazoei aurre egiteko. Espainian politika horiek ez dira berariazkoak, baina gizarte-zerbitzuek egoera berria ulertu behar lukete eta gazteengana hurbildu ingurune teknologiko berri horretan, gazteen kodeak erabili behar lituzkete gazteei ulertzeko eta ingurune horretan sortzen zaizkien arazo eta arrisku ugarietan laguntzeko



SEGADO SÁNCHEZ-CABEZUDO, Sagrario y Ana ESPERÓN. Familia, formación y empleo en la transición de los jóvenes a la vida adulta. En: SEGADO SÁNCHEZ-CBEZUDO, Sagrario, coord. *Juventud, emancipación y trabajo salarial*. Cizur Menor (Navarra): Thompson, 2016, capítulo 14, 363-380. ISBN 978-84-9098-002-6.

Gazteek helduaroko bizimodurantz egiten duten bidea familiaren eta hezkuntzaren inguruko faktoreek baldintzatzen dute. Familia ez dago gizartearen aldaketetatik aparte eta permisibitate, hedonismo eta kontsumismo handiagoen eragina jasotzen du. Hezkuntza-eredu demokratikoez, dirudienez, axolagabe, autoritario edo permisiboek baino hobeto trebatzen dituzte gazteak gaitasunak garatzeko. Hezkuntza eta enplegua behar dira trantsizioa egiteko. Hezkuntzak maila handia du, baina horrek ez du esan laneratzeko egokia denik, eta gainera paradoxa argia gertatzen da, Espainian eskola-uztearen maila ere oso handia baita. Bestalde, enpleguak ezaugarri ditu, biztanleriaren sektore horretzat, kolokatasuna eta ziurtasunik eza, sarritan gazteak gizartetik baztertuta utzi daitezkeenak. Horiek horrela, gizarte zerbitzuak giltzarri dira. Gazteek ez dute inongo eginkizun aktiborik gizarte-politiken definizioan; gutxi hurbiltzen zaizkie, batez ere lan-normalizazioaren eta mantenuaren estalduraren inguruko gaietarako, eta agian beharrezkoa litzateke zerbitzuen eta gazteen arteko harremanak ingurune birtual batean gauzatzea, hain zuzen ere gazteek ingurune horretan mobilizatzeko gaitasun handia dutelako.

